



LAU HAMARKADA EULI ARRANTZA GARATZEN

Euli arrantza, oso modalitate moldakorra da, eta Andoainen, euli arrantza praktikatzeko ohitura oso ohikoa zen 90 eko hamarkadan, baina pixkanaka, ezezaguna bilakatzen ari da herriarren artean, euli arrantza, Urruzuno anaiak ekarri zuten Andoainera duela 45 urte inguru eta, hortik aurrera, Andoain. Euskadiko euli arrantzan referentzia bilakatu zen. Euli arrantza arrantza modalitate bat da. Non hainbat modutan arrantza egin dezakezun. Adibidez, gainazalean dagoen amuarraina euli lehorrarekin arrantzatuz edo ur azpian dagoen korrantean ninfa erabiliz, eta horrela, arraina harrapatuz. Era berean, arrainak imitatzen dituzten streamer-ekin arrantza dezakezu; horiek arraina imitatuz mugitzen dira, eta mugimendu horrek arrainak erakartzen ditu. Gainera, itota arrantza dezakezu, ondorioz, oso modalitate moldakorra da.

Arkaitz Martin Rollan: Euli arrantzan aditua.

Zergatik erabaki zenuen euli arrantza praktikatzea?

Hasieran, denek bezala, sakonean eta arrantzatzeko koilararekin arrantzatzen hasi nintzen. Pertsona zaharragoak euliarekin arrantzatzen ikusten nituen, oso ikusgarria zen, eta horrek oso erakargarria iruditzen zitzaidan, desberdina zelako. Eskuko lana zen, ez zen arrantzatzeko biraderarik erabiltzen, baizik eta eskuak. Azkenean, arreta deitu zidan, eta horregatik hasi nintzen euliko arrantzan.

Nork ekarri zuen euli arrantza Andoainera?

Ez dakit zehazki nork ekarri zuen, baina euli arrantza Andoainera ekartzen lagundu duten pertsona batzuk baldin badaude, Urruzuno anaiak izan dira. Aspaldi euli arrantzan espezializatutako arrantza-denda bat sortu zuten. Lehen ez genuen gaur egun daukagun internet, eta informazioa lortzea oso zaila zen. Euli arrantzan gure amuak egiten ditugu; euli arrantzaren anpliazio bat da, etxean zaudenean, ezin duzu arrantzatzen jarraitu, baina bai zure amuak herrian muntaiak egiteko materiala lortzeko eta zuri irakasteko denda bat izateak asko lagundu zuen prestatzen.



Zein entitatek kontrolatzen du arrantza?

Arrantzaren araudia Gipuzkoako Foru Aldundiak ezartzen du. Kotoak, kotoen kudeaketa eta pasen programak Gipuzkoako Arrantza Federakuntzak kudeatzen ditu.

Nola lortzen da arrantza lizentzia?

Lizentzia... lehenik eta behin, arrantzatzen hasi aurretik araudia irakurri behar da. Lizentzia Foru Aldundiak ematen du, Internet bidez edo Gipuzkoako Plazan, Aldundiaren eraikinean, aurrez aurre eskura daiteke.



Nola jakin zenuen arrantza zure zaletasuna zela?

Txikitatik gustatu izan zait. Uste dut arrantzan hasi nintzela gurasoekin hondartzara joaten nintzenean, Getariako portuan jendea arrantzatzen ikustean, interesatzen hasi zitzaidan. Arrain bat engainatzeko eta harrapatzeko gaitasunak engantxatu ninduen.

Zerk motibatu zintuen arrantzatzera?

Azkenean, amuarrain edo arrain bat engainatzeko gaitasunak motibatu ninduen.

Nork irakatsi zizun arrantzan?

Pixkanaka, arrantzatzen zuten pertsonak ezagutzen hasi nintzen. Gaztea nintzenez, gerturatzen zitzaizkidan eta nola egin behar nuen erakusten zidaten. Bi maisu garrantzitsu izan ditut arrantzan: alde batetik, Manu, 14-15 urterekin euliko arrantzan hasi nintzenean lagundu zidan; eta bestetik, Patxi Urruzuno, lantegiko nire arduraduna.

Zein adinetan hasi zinen euli arrantzan?

Gurasoek kanabera eta botak erostea lortu nuenean, ez dut ondo oroitzen, baina 14 urte ingururekin hasi nintzen.

Zer izan zen hil gabeko arrantzatik arreta deitu zizuna?

Hil gabeko arrantza, nire ustez, arrantzaren bilakaera da. Konturatzen zarenean arrantza bera gustatzen zaizula eta ez arrainak jatea, askatzea erabakitzen duzu. Arrainek nahikoa sufritzen dute kutsadurarekin, presa oztopoekin eta klima-aldaketarekin. Arrantza, nire kirola denez, nik adibide bat jarriko dizuet: Futboleko gol bat sartzen den bakoitzean, baloia zulatzea pentsatzen ez den bezala, nik ere ez dut amuarrain bat hiltzea pentsatzen.

Zerk eraman zintuen txapelketetara?

Txapelketetan hasi nintzen, zeren nire, ustez arrantzaren bilakaera bat da: norbera gaitzitzeko eta hobetzeko esfortzua. Arrantzan, 2 ordu lehiatzen da eta beste 2 beste arrantzale bat kontrolatzen, orduan, beste teknika berriak eta zure teknikak hobetzeko aukera ona eskeintzen du, horrela, oso azkar ikasten duzu.

Zein tresna erabiltzen dituzu euli arrantzarako?

Tresna ugari dira.. muntaiak egiteko materialak, amuak eusteko tornuak, bobinak, lumak, kanabera ezberdinak, euli lehorrean arrantzatzeko, besteak baino matatakoea eta malguagoa linea pisutsuago batekin eulia hobeto maneijatzeko, gero beste kanabera bat luzeagoa, ninfan arrantzatzeko, lakuan arrantzatzeko, kanabera gogorragoa, materialak, pila bat dira... sakadera, botak, baina pixkanaka, material guztiak lortzen dituzu.

Zein urtean eta nola irabazi zenuen zure lehenengo txapelketa?

Lehenengoa... Infantiletan nengoenean San Juanetako arrantza txapelketan Ontza elkarteak egiten zuena, 6 edo 7 urterekin.

Zein izan da irabazi duzun txapelketarik garrantzitsuena?

Denak garrantzitsuak dira, baina Espainako txapelduna izan nintzenean, alta konpetizio espainolean sartzea eta Espainako Selektzioan bigarrena gelditzean, mundialetara joatea, baina oroipen polit batekin gelditu beharko banu, Euskadiko Selektzioarekin irabazitako nazionala izango liteke, selektzio batekin irabaztea, nire taldekideekin eta guztion artean esfortzatzea, nolakoak diren guri tokatutako tramoak, zer eulik funtzionatzen zuen, informazioa partekatzea, politena da.



Zein dira Andoaingo txapeldunak maila nazionalen?

Andoaingen uste dut bost Espainiako txapeldun ditugula seniorretan: Urruzunoetako bi anai, Jonathan, ni, eta gazte mailako beste bat.



Zein izan da harrapatu duzun arrainik arraroena edo zailena?

Arraroa? Asko gustatu zitzaidan Poloniako Mundialan egon ginenean, timaloak arrantzatu ahal izatea, Espainian ez dagoenez, bizkar-hegats deigarria duen arraina da, gero erbai, izokin batzuk ere harrapatu ditut hemen, ez da arraroa baina oso zaila da harrapatzea hain gutxi daudelako, eta sabaloak, sardina erraldoi moduko bat da ibaietara sartzen direnak arrautzak jartzera. arrain nahiko ezezagunak dira, egia esan, arrain dezente daude

Zenbat denboraz jarraituko duzu arrantzan?

Arrantzatzen? Nik uste dut bizitza osoan, beste maila lasaiago batean, azkenean, bizitzak betebeharrak gehiago jartzen dizkizu, lan gehiago, baina azkenean, nik uste dut arrantzalea izaten hilko naizela.



Elkarrizketa QR



Ibai Martin, Maika Zabala eta Manex Garitano